



EBAZPENA, 2022KO APIRILAREN 7KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, EBAZTEN DA 2022/2023 IKASTURTERAKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK BAIMENTZEA HAUTETSIA IZATEAGATIK; HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2022KO OTSAILAREN 1EKO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikulan ondorengoa dio:

“Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

“Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez”

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10.2 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren bidez, hautetsia izateagatik egindako deialdia argitaratu zen.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak azterturta, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, 2022/2023 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak baimentzea ebazten duena argitaratzea. Deialdia 2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Ebazpen honen I. Eranskin argitaratzea, Eranskin horretan ageri dira 2022/2023 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak.

Hirugarrena.- Ebazpen honen II. Eranskin argitaratzea, Eranskin horretan ageri dira 2022/2023 ikasturterako ezeztatutako eta uko egin duten zerbitzu-eginkizunak.

Laugarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

Bosgarrena.- Argitarapena <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> webgunean egingo da.

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 7an.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA